

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

Molly Nilsson



Berlinen bizi den [Molly Nilsson](#) artista suediarra Night Schoolek argitaratu berri duen Twenty Twenty LPko kantuak aurkeztu ditu. Hamar urte baino gehiagoz korrontearen aurka ibili eta gero, artistak haren kantuak konposatu, idatzi, ekoitzi eta nahasten ditu, oraindik orain pop sintetikoaren agertoki orokorrean gutxitan azaltzen den gisan bere burua aski duela azalduz.

Haren soinua bakardade izugarri aberatsa ekartzen du gogora, esperientzia horretan oinarrituz eraikita dagoelako, haren hitzetan kontatzen den era berebean: egunerokotasunaren magia aurkitzen duten kantuak dira,aldi berean bakarrik egoteko gaitasuna jarrera politikotik hurbil dagoen zerbait balitz bezala irudikatzen dutenak. Baikortasun irrealaren eragiten dute haren erreperitorioak eta sentsazioek: ia jende guztiak ihes egin nahi duen egoera emozional batez gozatzeraz gonbidatzen gaitu.

[Molly Nilsson](#)ek era berean aurkeztu du bere burua zuzenean ere: bakarrik, CD irakurgailu baten laguntza hutsarekin, bere kantuak bakarrik abestuz, beste inoren laguntzarik gabe. Eszenaratze hori haren nortasunaren eta autonomiaren atal bat da, eta bere kantutegiari egin ahal zaion irudikapenik onena egiten dio.

Night School bere ziguiluekin editatutako Imaginations azken disko ederra bizitza personalean izan dituen azkenaldiko aldaketen eta dinamiken erakusgarria da; aurreko Zenith lana baino eklektikoagoa izanik, edonola ere doinu iradokitzailak bezain distiratsuak eskaintzen jarraitu du. Horretarako, haren bi baliabide nagusiak erabili ditu: sintetizadorea eta erreberberazioa.

Twenty Twenty (2018) lanak ere abiapuntu bera du: bakardaderik sakonenean dagoen itxaropena. Egileak berak honela definitu du bere diskoa: «lagun bat, edozein unetan harengana jotzeko modukoa». Lan horretan, guztiok barnean hartzen gaituzten gai gori-goriei buruz egiten du gogoeta, hala nola ekonomia modernoaren eta sistema kapitalistaren ankerkeriaz, eta ez ulertze emozionalari eta konpainiari diogun izu-ikaraz.

////////////////////////////////////

Urtarrilak 25, ostirala

21:00

Kulturen Ataria (Igerilekuaren argi-zuloaren azpian)

12€ / 10€ Az Txartelarekin

Sarrerak: [Infopuntua](#) eta

[www.azkunazentroa.eus](#)

////////////////////////////////////

 www.darkskieassociation.org/news-updates/

 [fkaWhiteBread](#)

Laguntzaila:



Atariko igerilekuko argizuloaren azpian, formatu intimistako kontzertuak antolatzen ditugu, pop, musika elektronikoa eta soinu eta musika aurreratuei lotuak.